


BALOREZKO PROPOSAMENA

Denon belarrietan dago arriskua edonon aurki dezakegula. Gu gazteak bezala hainbat arriskuen testigu izan gara eta askotan horiek sufritzeaz ere egon gara. Arrisku gehienak lagunekin ateratzen garenean gertatzen dira; jende asko metatzen den lekuetan, festetan adibidez. Momentu horietan ziur egoteak ondo pasatzea baino gehiago arduratzen gaitu; zehazki gertatu dakizkiguen gaitzen zain gaude. Beraz, gure artean, lagundu gintezkeen baliabideen inguruan hitz egin genuen eta hurrengo produktuak proposatu genituen.

Bi produktu nagusi ditu gure enpresak: **poltsak eta eskumuturrak**. Bi produktuek hainbat diseinu desberdin izango dituzte denon gustura izan daitezten. Honen arrazoia da betiko segurtasun-produktuak ez atseginak iruditu zaizkigutela eta hori aldatzeko, diseinu franko asmatu ditugu. Bi produktuek, norberaren segurtasuna lortzeko bada ere, funtzio desberdinak dituzte. Eskumuturra erasoak ekiditzeko tresna da. Horretarako, elkarren artean konektatuta dauden bi eskumuturreko packetan salduko ditugu; eraso bat gertatzekotan, bata ukitzean bestea konektatuko baita (dardara eta soinuaren bidez). Hau funtzionatzeko, pultsera bakoitzaren kokapena beste pertsonaren mugikorran sartuta (produktua erostean) egon behar da, lehenengo pultsera piztekotan abisua bigarren pertsonari ailega zatzaio.

Gure produktuak aurkitzeko eta erosteko akontuak sortuko ditugu sare sozialetan; hala nola, Tik Tok, Instagram, Facebook, produktua hedatzeko metodorik azkarrena baita. Hala ere, sareetan produktuaren publizitatea baino ez dugu egingo, produktua saltzeko aplikazio bat sortuko dugulako: **ScutumApp**. Aplikazio horretan bertan, kolezioak behatu eta erostea posiblea izango da; baina baita, bigarren eskumuturra duen partaidearen kokapena aktibatzea ere.

Lehen esan dugun bezala, produktu honen helburua ororeen jarraipena hobetzea da jende asko dagoen leku batera irtetean, kontzertuetan, jaialdietan... eta modu moderno eta dotorean egitea. Produktu honekin egungo gizartea hobetu nahi dugu, lapurreten eta tratu txarren tasa gehiegi igo baita azken urteotan.



Azaldu dugunez, gure enpresak bi produktu eskaintzen ditu: pultserak eta poltsak. Estiloari dagokionez, pultserak hiru motatakoak izango dira: zilarrezkoak, urrezkoak eta larruzkoak. Pultserak bigarren pertsonaren App-arekin konektatzen dira; horretarako, kokapena zehaztu eta bidaltzen duen txipa eraman behar dute. Zilarrezko eta urrezko pultserek itxigailuan eramango dute eta larruzko pultserek barneko metalan sartuta. Poltsak hiru motatakoak izango dira: larruzkoak, gomazkoak eta oihalazkoak. Poltsak ziurrak izan behar dira erasoak edo lapurketak gertatzekotan barruan dauden elementu elementuak eraginik ez jasateko. Horretarako, poltsa hauek 3 geruzetaz osatuko dira, kanpotik ikusten diren poltsikoak barrutik joango dira eta kremaierak erosten duen **pertsonaren hatz-marka artxibatuko du**, bakarrik berak irekitzeko ahalmena izateko. Produktu bien diseinua web-an aukeratu ahal izango dute (artikuluen forma berdina izango da), web orrialdea irekitzen dugunean diseinu batzuk jarriko ditugu aukera bezala baina bere diseinu propioak sortzeko aukera ere egongo da. Prezioari dagokionez, pultserek 50€tik gorako kostua eukiko dute eta poltsek 40€tik gorako kostua (erosten den materiala eta diseinuaren arabera zehaztuko dira prezio finalak).

Gure produktuak ez dira pertsona-talde konkretu batera mugatzen edonork ikusi dezakelako bere burua arrisku egoera batean. Hau da, gure artikulua guztion esku egongo dira -aurretik aipatu dugun bezala web-orrialdearen bidez erosiko da, beraz baldintza bakarra aplikazioa eukitzea izango da-, arrisku guztiak ekiditzea baita gure helburu bakarra.

Badakigu ziurtasuna ahalbidetzen duten produktu pilo sortuta daudela, baina guk saltzen ditugun produktuak bestean produktuetatik ezberdintzen dira aukera zabala dutelako eta ezin hobeto pasa daitezke egungo apaingarri erakargarrietatik bezala. Ez dira ia ezer bereizten ohiko eskumuturreko apaingarrietatik; hau da, ez dira erakargarriak era itsusi batean. Eta gainera, **abantaila erantsi** bat du: babes-funtzioa da, azken belaunaldiko teknologia sofistikatuarekin, eta horrek ia ezinezkoa egiten du eskumuturrekoarekin lotutako komunikazioa galtzea. Gauza bera egiten du poltsoekin, lapurrek irekitzeko ahalbide eza izateaz gain.

Amaitzeko enpresa honen etorkizuneko ikuspegia ere aipatu nahi dugu: eskumuturreko eta poltsen bertsio berriak ateratzen jarraitzea da; hau da, sasoiko bildumak kaleratzea diseinu ezberdinekin, momentu horretako moda joeren arabera. Horrela, kontsumitzaileak bere gustura aukeratzeko aukera izango du. Gainera, produktua funtzionala izateaz gain, bezeroarentzat ere ederra da eta ez du diseinuak baldintzatzen erosterakoan. Era berean, produktuak probatu ondoren bezeroek jakinarazten dizkiguten hutsegite eta gomendio guztiak ere kontuan hartuko ditugu, ahalik eta kalitate onena eskaintzeko eta beharrezkoak diren aldaketak egiteko, produktu honek benetan funtziona dezan eta kanpoko eraso-uneetan laguntzea.